




zerbikas^{en}
1 gidak

nola jarri abian
ikasketa
eta zerbitzu
solidarioko
proiektu bat

*_ Josep Maria Puig, Xus Martín
eta Roser Batlle*





aurkibidea

Sarrera	4
1. aldia. Zirriborroa egitea	6
2. aldia. Harremanak ezartzea gizarte-erakundeekin	8
3. aldia. Plangintza	10
4. aldia. Prestaketa	12
5. aldia. Betearazpena	14
6. aldia. Amaiera	16
7. aldia. Ebaluazioa	18





Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioa oso nahasketa berezia da, guztiz ezagunak diren bi osagai uztartzen baititu: esperientzian oinarritutako ikasketa eta komunitateari egindako zerbitzua. Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioak ekarri duen berrikuntzarik handiena bi osagaien artean sortu den harremana da. Izan ere, osagaiek, bakoitzak bere aldetik, ez dute inolako berezitasunik, oso osagai ezagunak baitira, hala irakaskuntza formalean nola ez-formalean ●●●

SARRERA

A PRESTAKUNTZA

Irakaskuntza formaleko edo ez-formaleko instituzio batek lkasketa eta Zerbitzu Solidarioaren arloko esperientzia bat antolatu nahi badu, hobe du lehenago urrats batzuk kontuan hartzea, hain zuzen, proiektua sortzen den unetik hasi eta azken ebaluazioa egiten den arte ibili behar den prozesu osoa barne hartzen duten urratsak. Urrats horiek gogoan izatea oso lagungarria izango zaigu egin behar ditugun lanak antolatzeko, eta, gainera, era horretan ez dugu erraz ahaztuko lkasketa eta Zerbitzu Solidarioaren arloko ekimen batek izan behar dituen oinarrizko alderdiak zein diren.

1 Proiektu baten etapak eta faseak

Prestakuntza, betearazpena eta ebaluazioa dira prozesuaren hiru une nagusiak; hala ere, hiru une horiek zazpi etapatan bana daitezke. Aldi bakoitzean, fase desberdinak bereiz ditzakegu, baina fase horien sekuentzien ordena, eta, era berean, fase bakoitzak duen intentsitate edo garrantzi berezia desberdina izango da, hainbat eragileren arabera; esate baterako, proiektu-mota edo taldearen adina edo heldutasuna ikusita, edota gizarte-erakundeekin sarean egiten den lana, eskolak edo irakaskuntza ez-formaleko erakundeak aurrez izandako esperientziak, proiektuaren berritasuna edo antzintasuna, eta bestelako aldagaiak aintzat hartuta. Hori guztia gorabehera, eskema honek duen alderdirik garrantzitsuena goian aipatu berri dugun oinarrizko zazpi aldiak dira.

1 aldia Zirriborroa egitea

faseak

- 1 nondik hasi behar den zehaztea
- 2 taldea eta kide bakoitza nola dagoen aztertzea
- 3 gizarte-aldeetik beharrezkoa den zerbitzua zehaztea
- 4 zerbitzuari lotuta egongo diren ikaskuntzak finkatzea

2 aldia Harremanak ezartzea gizarte-erakundeekin

faseak

- 5 lankidetzak zein erakunderekin izango dugun ahaztea
- 6 eskaera egitea eta akordioa lortzea

3 aldia Plangintza

faseak

- 7 alderdi pedagogikoak zehaztea
- 8 kudeaketa eta antolakuntza zehaztea
- 9 taldearekin lan egiteko aldiak zehaztea

B BETEARAZPENA

4 aldia Prestaketa

faseak

- 10 taldea motibatzea
- 11 arazoaren diagnostikoa egitea eta proiektua zehaztea
- 12 egingo dugun lana antolatzea
- 13 prestakuntzako ikaskuntzei buruz hausnartzea

5 aldia **Betearazpena**

faseak

- 14 zerbitzua ematea
- 15 inguruko beste pertsona eta erakunde batzuekin harremanetan jartzea
- 16 proiektua erregistratzea, komunikatu eta hedatzea
- 17 proiektua betearazi bitartean egindako ikaskuntzei buruz hausnartzea

6 aldia **Amaiera**

faseak

- 18 egindako zerbitzuari buruz hausnartzea eta ebaluazioa egitea
- 19 gogoetak egitea eta ikaskuntza ebaluatzea
- 20 etorkizunari begira dauden aukerak zehaztea
- 21 bizi izandako esperientzia ospatzea

C EBALUAZIOA

7 aldia **Ebaluazioa**

faseak

- 22 taldea eta neska-mutiko bakoitza ebaluatzea
- 23 gizarte-erakundeekin sarean egindako lana ebaluatzea
- 24 esperientzia ebaluatzea Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioaren arloko proiektua den aldetik
- 25 hezitzaile gisa autoebaluatzea

2 Aldez aurreko iritziak

_ **Neska-mutilen parte-hartzeari** dagokionez: sarritan, hezitzaileek gaia erabaki eta proiektuaren zati handi bat prestatu behar izaten dute neska-mutilei aurkeztu baino lehen, batez ere, neska-mutil horiek gaztetxoak badira edo esperientzia gutxi badute. Alabaina, gerta daiteke gazteek bete-betean parte hartzea gauzatu nahi duten proiektu-mota erabakitzerakoan eta proiektu horren aldiaren plangintza egiterakoan. Kasu horretan, goian adierazi ditugun lehenengo hiru aldiak laugarren aldiarekin uztartuko dira –Taldearekin prestatzea izenekoarekin, alegia–. Era horretan, proiektua sortzen den lehenbiziko unetik, proiektuaren oinarria gazteen eta haien hezitzaileen arteko baterako parte-hartzea izango da. Ezinezkoa bada horrelako maila handia lortzea parte-hartzeari dagokionez, lehenbiziko hiru aldiak hezitzaileen erantzukizunaren mende egongo dira.

_ **Hausnartzeari eta barneratzeari** dagokienez: hausnartzeko eta barneratzeko faseak beti azaldu behar du, neska-mutilekin proiektua garatzeko egiten diren aldi guztietan egon behar du. Izan ere, fase horri esker, lotura estuagoa lortu ahal izango dugu ikasketaren eta zerbitzuaren artean, eta, horrez gain, fase hori baliagarria izango zaigu neska-mutilak esperientziaren bidez ikasten –hau da, jasotzen– ari diren guztiaz kontzientzia daitezen lortzeko. Batek aberasten ari dela onartzea lagungarria izaten da eskema paternalistak gainditzeko, batez ere gizarte-arloko proiektuetan, proiektu horietan zerbitzuaren hartzailak pertsonak baitira (aitona-amonak, txikiagoak diren neska-mutilak, immigranteak, eta abar). Azken batean, hausnarketaren bidez ohartuko gara komunitateari zerbitzua eginez ikasten den guztiaz, eta hori oso egokia da gainerako pertsonetikiko elkarrekotasuna, begirunea eta esker ona duen ikuspegia lantzeko.

1. ALDIA ZIRRIBORROA EGITEA

Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioaren arloko proiektu bati ekiteko, ideia bat hartu behar dugu abiaburutzat –ideia hori pizten den txinparta bat balitz bezala–, zehazki, interesgarria iruditzen zaigun, oso gustukoa dugun, eta, borondatez jardunez gero, irakaskuntzako proposamen gisa garatzeko bideragarria iruditzen zaigun ideia bat.

Hasierako abiaburu horretatik aterata, lehenbiziko urratsak egingo ditugu ikastetxeko zuzendaritzaren eta kideen laguntza bilatu nahian. Era berean, berehala hasiko gara bilatzen zein izan daitekeen lekurik eta unerik egokiena Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioaren arloko jarduera irakaskuntzako instituzioaren ohiko jardunean txertatzeko.

Aurreikuspen hori txukun ordenatuta dago eta oso logikoa da, baina, hala ere, gerta liteke une horrexetan Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioaren arloko jarduera bat egiten egotea, horretaz ohartuta egon gabe edo aurrez horrelakorik erabaki gabe. Kasu horretan, onuragarria izan daiteke kontzientzia hartzea egindako lanari dagokionez, eta ahaleginak egitea lan horri jarraipena emateko eta ahalik eta erarik egokienean egiteko.

Nolanahi ere, lehen aldi horren bukaeran, hiru galderari erantzuna ematen dien eskema izan beharko genuke prest; hona hemen erantzun beharreko galderak:

- Zein beharrizan edo arazo soziali emango liokete erantzuna neska-mutikoek?
- Zein izango da neska-mutilek egingo duten zerbitzu zehatza?
- Zerbitzua egin ondoren, zein ikasketa lortu ahal izango dugu?

1 Nondik hasi behar den zehaztea

Oso baliagarria izan daiteke ondoko hiru galdera hauek geure buruari egitea:

- **Zer egin dezakegu?:** Hezkuntza-arloko jarduera egoki bat hartuko dugu abiaburutzat, Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioaren arloko jarduera bilakatzeko? Ikasketako eduki bat hartuko dugu abiaburutzat eta ahaleginduko gara komunitateari horri lotutako zerbitzu bat eskaintzen? Nabaria den gizarte-arloko beharrizan bat hartuko dugu abiaburutzat?
- **Zein izango dira gure lankideak eta zer-nolako laguntza emango digute instituzioek?:** Zuzendaritzaren laguntza izango dugu? Nola jarriko dugu abian proiektua, guk bakarrik edo talde-lana egiten? Familien edo boluntarioen laguntza izango dugu?
- **Esperientzia non kokatuko dugu?:** Irakaskuntza formalari dagokionez: Zein arlotan, tutoretzatan edo kreditutan?, eta eskolako ordutegiaren barruan edo ordu horietatik kanpo? Irakaskuntza ez-formalari dagokionez: udalekuetan, kanpamentuetan, aisialdiko ikasketako zentroetan, ludoteketan?

2 Taldea eta kide bakoitza nola dagoen aztertzea

Azken batean, lortu nahi duguna da taldeak eta taldea osatzen duen pertsona bakoitzak duen heldutasunari, eta, era berean, dituen aukerei eta mugei buruzko ikuspegi bat lortzea. Adibidez, lau faktore hauei buruz egin genezake hausnarketa:

- Taldeko neska-mutilek dituzten interesei eta motibazioei buruz.
- Proiektuetan parte hartzeari dagokionez aurrez izan duten esperientziari eta ikasketa- eta adimen-mailari buruz.
- Taldearen dinamikari, lidergoari, rolei eta gatazkak kudeatzeko moduari buruz.
- Taldean dagoen giro moralari, jarrerei eta adostutako balioei buruz.

3 Gizarte-aldetik beharrezkoa den zerbitzua zehaztea

Taldeak izan ditzakeen aukerei buruz holako diagnostikoa prestatu ondoren, hurrengo urratsa hauxe izango litzateke: zerbitzu-mota bat zehaztea, neska-mutilen taldearentzat beharrezkoa, interesgarria, eskuragarria eta, aldi berean, egokia izan daitekeena. Hala, bada, honetaz egin beharko dugu hausnarketa:


- Gizarte-arloan dauden benetako beharrizanen edo “arrazoien” artean, horietatik zein izango lirateke motibazio garrantzitsua neska-mutilentzat?
- Zein zerbitzu egin liteke, beharrizan horiei lotuta?

- Inguruan horrelako auziekin engaiatuta dauden erakundeen artean, zeintzuek emango ligukete laguntza zerbitzua egiteko?

4 Zerbitzuari lotuta egongo diren ikaskuntzak finkatzea

Komunitateari egingo diogun zerbitzua zehaztu ondoren, egokia da zerbitzu horrek izan dezakeen indar pedagogikoa ustiatzea:

- **Irakaskuntza formalean:** ondo zehaztu behar dira zerbitzuan sartuta dauden eta hainbat gairi (hizkuntza, matematikak, zientziak, teknologia, atzerriko hizkuntza, adierazpen plastikoa, gorpuztze-hezkuntza... bezalako gai) lotu ahal zaizkien ikasketa-edukiak; era berean, ondo aztertu behar da nola landu litezkeen gai horiek ikasgelan modu osagarri batean, zerbitzua egitearekin batera.
- **Irakaskuntza ez-formalean:** kontua da zerbitzua lotzea erakundeak dituen irakaskuntza-arloko ikuspegiarekin eta helburuekin. Horrez gain, ondo ikusi behar da ea zein den esparrurik egokiena jarduerak antolatzeke, irakaskuntzako orduetatik kanpo egitea, asteburuetan prestatzea edota opor-garaian jartzea.



2. ALDIA HARREMANAK EZARTZEA GIZARTE-ERAKUNDEEKIN

Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioaren arloko proiektu gehienetan, irakaskuntza-arloko instituzioak gizarte-arloko erakunderen batekin elkartu behar izaten du; era horretan, erakunde horrek erraztu ahal izaten dio zerbitzua egingo duen errealitatearekiko lotura, eta, era berean, sostengua eman ahal dio lortu nahi den irakaskuntza neurri batean errazteko. Normalean, ez eskolak, ezta formalak ez diren erakundeek ere, ezin dute Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioaren arloko proiektuak burutu laguntzarik gabe: behar-beharrezkoa da lankidetzako loturak eratzea. Ezinbestekoa da irakaskuntza-arloko sare zabalagoak eta trinkoagoak ehuntzea, irakaskuntzako instituzioen esparrutik harantz joz, hartara, lankidetzan aritu ahal izateko eta “hiri hezitzailea” sortzeko aukera benetan gauzatu ahal izateko¹.

Alabaina, ez da batere eginkizun erraza lankidetzako loturak eratzea irakaskuntzako eta gizarteko erakundeen artean, Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioaren arloko proiektuak batera garatzeko. Gutxienez, jarraian zehaztuko ditugun urratsak izan beharko ditugu gogoan. Aldi honen bukaeran, tartean dauden alde guztiek bat etorrita sinatutako agiri bat eduki beharko genuke, eta agiri horretan argi jaso beharko lirarteke alde guztiek beren gain hartutako konpromisoak.

5 Lankidetzaren zein gizarte-erakunderekin egingo dugun zehaztea

Egin nahi dugun proiektuaren zirriborroa prestatu ondoren, finkatu dugun zerbitzu-mota egiteko sostengu hobea emango diguten gizarte-erakundeak bilatzen hasiko gara. Oso lagungarria izango da “Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioaren arloko” topagune bat gertu izatea, lehendik alderdia ondo arakatu duen eta ingurunean dauden gizarte-erakundeen inbentarioa egin eta, orobat, erakunde horiek zerbitzu-aldetik duten eskaintza bildu duen topagunea. Artean ezaugarri horiek dituen erakunderik ez badago, ikasi ditugun ezagutzak erabili beharko ditugu edo laguntza eskatu beharko dugu, erakunderik egokiena aurkitu arte.

Gure herrialdean milaka gizarte-erakunde eta gizarte-zerbitzu dago Administrazioari lotuta, eta erakunde eta zerbitzu horiek eskaintzen dituzten irakaskuntzako proposamenak Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioaren arlotik hurbil daude. Ekimena nork duen alde batera utzita, lankidetzan norekin aritu nahi dugun jakin ondoren, harremanetan jarri beharko dugu erakunde horrekin, eta, horretarako aukerarik badago, bilera bat adostu beharko dugu harekin. Lehenbiziko harreman hori, bai eta lankidetzaren prozesuan izan daitezkeen gainerakoak ere, askoz ere errazagoak izango dira “Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioaren arloko” topagune bat gertu badugu, eta horrek bitartekaritza eta errazte-lanak egiten baditu.

¹ Hiri Hezitzaileen Nazioarteko Mugimendua 1990. urtean jarri zen abian Bartzelonan. Gaur egun, mundu-mailako sare honetan 250 hiri daude.

6 Eskaera egitea eta akordioa lortzea

Lankidetzan aritzeko akordioa lortu aurretik egin beharko dugun lehen urratsa hauxe da: irakaskuntzako instituzioak gizarte-erakundeari egiten dizkion eskaerak azaltzea, hau da, lkasketa eta Zerbitzu Solidarioaren arloko proiektua arrazoitzea eta gizarte-erakundeak bete beharko lukeen zeregina argitzea. Proposamena argitu ondoren, gizarte-erakundeak erabaki beharko du proposamena bere gain hartu ahal duen edo ez. Horrek esan nahi du gizarte-erakundeak ondo egiaztatu beharko duela ea eskaera bat ote datorren erakundeak izan ohi dituen helburuekin, ea ohiko zeregin horretan laguntzaren bat lortuko ote duen –ez dugu ahaztu behar azken batean kontua dela neska-mutilek zerbitzu baten erantzukizuna beren gain har dezaten lortzea–, eta, era berean, ea ba ote duen dagokion prozesuaren zatia betetzeko behar adina baliabide eta azpiegitura.

Galdera horien guztien erantzuna baiezkoa baldin bada, orduan, lankidetzak akordioa egiteko unea izango da. Akordio hori, gainera, lankidetzan aritzeko dagoen borondatearen adierazpena izango da, eta, bestalde, barne hartu beharko lituzke irakaskuntza-arloko instituzioek eta, orobat, gizarte-erakundeek beren gain hartuko dituzten konpromiso zehatzak.



3. ALDIA PLANGINTZA

Lankidetzan arituko garen gizarte-erakundeekin egindako akordioa abiaburutzat hartuta, proiektuaren zirriborroa prestatu eta proiektuari itxura eman ondoren, zein neurri hartuko dugun planifikatzen hasiko gara. Normalean, proiektuaren plangintza taldearekin batera prestatzea izaten da onena, baina neska-mutilak gazteegiak badira edo taldeak esperientziarik ez badu, hobe da aurrez hezitzaileak fase trinko bat sartzeari plangintza egiteko.

Oro har, kontua izango litzateke agiri labur bat prestatzea, agiri hori proiektuari ekiteko gida baten moduko zerbait izan dadin. Azken batean, errealitatea zertan den ikusita geroxeago aurreikuspen batzuk aldatu behar baditugu ere, baliabide gehiago izango ditugu eskura, jarduerak hobeto prestatuta gauden unean egiteko. Aldi horren bukaeran, hautatuta izango dugu proiektuaren izena, edo, bestela, zehaztuta izango dugu nola aukeratuko dugun neska-mutilen taldearekin batera.

7 Alderdi pedagogikoak zehaztea

Proiektuaren ikuspegi pedagogikoan, honako alderdi hauek zehaztu beharko lirateke:


- **Irakaskuntza-arloko helburuak:** ikasketakoak, zerbitzukoak, banakakoak, taldekoak...

- **Jarduerak:** ikasketakoak, zerbitzukoak, hausnarketakoak, komunikaziokoak...
- **Ebaluazioa:** helburuak lortzen ari garen jakiteko beharrezkoak diren ebaluazioko tresnen eta metodoen aurreikuspena; eta, hala behar denean, tresna eta baliabide horiei ematen diegun ikasketa-balioa.
- **Hezitzailearen zeregina eta eginkizunak:** gure eginkizunaren helburua izango da proiektua eta taldea dinamizatzea, gizarte-erakundeekin harremanetan jartzea, eta, era berean, proiektua gauzatzeko behar dugun prestakuntza lortzea.

8 Kudeaketa eta antolakuntza zehaztea

Proiektuaren kudeaketan, alderdi hauek zehaztu beharko lirateke:

- **Egutegia eta ordutegia:** zenbat denbora emango dugun proiektua egiteko, nola banatuko dugun denbora hori, noiz hasiko eta noiz burutuko den proiektua.
- **Aurrez bete behar diren baldintza formalak:** baimenak, jakinarazpenak, aseguruak...
- **Familiekiko harremanak:** informazioa, adostasuna, laguntza...
- **Sareko lana:** koordinazioa, akordioak, bilerak, bakoitzak bete beharreko zereginak eta horrelakoak zehaztu beharko ditugu.
- **Materialak, azpiegiturak eta ekipamendua:** aretoak, material suntsikorrak, ekipamenduaren materiala...



- **Proiektuaren berri hedatzea:** gutunak, triptikoak, komunikabideetan ezagutzera ematea...
- **Aurrekontua:** gastuak, lor daitezkeen sarrerak, kontrol-sistema...

9 Taldearekin lan egiteko aldiak zehaztea

Taldearekin lan egiten hasi aurretik, ondo pentsatu behar dugu une bakoitzean zer-nolako ahalegina egiteko eskatuko diegun:

- **Prestatzeko denbora:** Nola motibatuko ditugu? Nola egingo dute arazoaren diagnostikoa? Nola zehaztuko dute proiektua? Nola antolatuko dira proiektua gauzatzeko? Nola ohartuko dira aldi horretan ikasten ari direnaz?
- **Betearazteko denbora:** Nola kontrolatuko dugu proiektuko jardueretara joaten diren eta eraginkortasunez parte hartzen duten? Nola bermatuko dugu jardueri buruzko datuak erregistratuko direla? Nola jasoko ditugu proiektua egiten den bitartean gizarte-erakundeak dituen iritziak? Nola ohartuko dira aldi horretan ikasten ari direnaz?
- **Ebaluatze denbora:** Nola ebaluatuko dute neska-mutilek egin duten zerbitzua? Nola ebaluatuko dute prozesua egin bitartean ikasi duten guztia? Nola ospatuko ditugu proiektuan lortutako emaitzak? Nola finkatuko dira etorkizunerako aukerak?

4. ALDIA PRESTAKETA

Proiektu bideragarrien ezaugarriak argi ditugunean eta uneetako bakoitzean –prestaketa, betearazpena eta ebaluazioa– taldea nola inplikatu zehaztu dugunean, neska-mutikoekin batera plangintza egiten has gaitzke, beraien proposamenak sartuz, eta, horrela, proiektua pertsonalizatuz eta pertsona guztien inplikazioa ahalbidetuz.

Aldi honen bukaeran, neska-mutiek prestatutako plangintzako osagairen bat eduki beharko genuke (horma-irudiren bat, txostenen bat, eta abar).

10 Taldea motibatzea

Ezinbestekoa da neska-mutiek zerbaiten alde agertzeko arrazoiren bat aurkitzea. Alabaina, hori lortzeko, denbora behar da, neska-mutilak hunkituko dituzten eta sensibilizatzeko modukoak izan daitezkeen egoerak bilatu behar ditugulako. Era askotako baliabideak erabil ditzakegu:

- Neska-mutiek gaur egun dituzten benetako interesak har ditzakegu abiaburutzat (kirol-, musika-, zinemagintza-arlokoak eta abar), eta, era berean, haien kodeak eta hizkerak balia ditzakegu.
- Helduagoak diren neska-mutilen lehenagoko taldeetan izan diren esperientziak erabil ditzakegu.

- Eskolatik kanpokoak edo erakundetik kanpokoak diren eta taldea proiektu garrantzitsuren batean parte hartzera gonbidatu ahal duten pertsonen zuzeneko testigantza bilatuko dugu.
- Taldeko liderrak zuzenean motibatuko ditugu.
- Antzeko ezaugarriak dituzten beste talde batzuekin batera partekatuko dugu proiektua.
- Une "hunkiberak" baliatuko ditugu, gizarte- edo familia-mailan eta taldean bertan.

11 Arazoaren diagnostikoa egitea eta proiektua zehaztea

Taldea jardueri ekiteko ondo motibatuta dagoenean, honako alderdi hauek zehaztuko ditugu neska-mutielekin:

- Landu nahi dugun egoerari edo arazoari buruzko diagnostikoa.
- Plangintzako urrats garrantzitsuenak: zer, zergatik, norentzat, noiz, non, norekin...
- Ikasketa-aldetik lortu nahi ditugun helburuak eta zerbitzua egiten lortu nahi ditugun emaitzak.
- Kide bakoitzak talde osoaren proiektuaren esparruan banaka hartzen duen konpromisoa.
- Gure proiektuari emango diogun izena.

12 Egingo dugun lana antolatzea

Plangintza egiteak esan nahi du egin nahi dugunari buruz ditugun ideiak ordenan jarri behar ditugula. Aitzitik, antolatzea da hori guztia lortzeko zer egingo dugun erabakitzea:

- Nola egingo dugu antolakuntza taldeetan edo batzordeetan (hala zeregin orokorrak egiteko, nola egingo dugun zerbitzuari berez dagozkion zereginak gauzatzeko), eta nola antolatuko ditugu banakako erantzukizunak?
- Zein lan-egutegi finkatu behar dugu proiektua aurrez ikusitako epe barruan bukatu ahal izateko?

13 Prestakuntzako ikaskuntzei buruz hausnartzea

Gauzak egiteari ekin aurretik, merezi du une batez geldirik egotea eta gogoeta egitea dagoeneko zenbat gauza ikasi dugun, edo, behinik behin, zenbat gauza erabili dugun ohar-tzeko. Hausnarketa horren bidez, ondokoa egin ahal izango dugu:

- Lortu edo indartu ditugun ikasketak identifikatuko ditugu.
- Ikasketa horiek balioetsiko ditugu, eta nola transferitu ahal ditugun finkatuko dugu.
- Geure burua ebaluatuko dugu.
- Plangintza-prozesuaren bidez ohartzen bagara hasieran aurreikusita ez genituen alderdi batzuk aintzat hartu behar ditugula, proiektua zuzendu eta berriz egokituko dugu.



5. ALDIA BETEARAZPENA

Gauzak egiten hasten garenean, tartean ez dugu ondoz ondoko aldirik aurkituko; aitzitik, horren orde, aldi berean jarduteko diren esparru desberdinak aurkituko ditugu, elkarren artean gurutzatzen diren eta indartzen diren esparruak. Esparru horiek sortu ahala zuzendu beharko dira, hau da, ustekaberen bat suertatzen den unean bertan, edo plangintzan akatsen bat sumatzen dugunean.

Aldi horren bukaeran, ikus-entzunezkoen material edo material grafiko aski eduki beharko genuke, hartara, egin dugun guztia behar bezala jasota utzi ahal izateko.

14 Zerbitzua ematea

Bi joeraren artean mugitzen den prozesu batean gaude sartuta, hain zuzen, ikasketaren eta zerbitzuaren artean dagoen prozesuan, eta, hortaz, hainbat auzi hartu beharko ditugu kontuan; honako hauek:

- Ikasgelako lana, hala teorikoa nola teknikoa.
- Lekuan bertan egindako lana: laguntza, irmotasuna, harrera egiten duen erakundearekin sinergiak finkatzeko ahalmena, gaitasuna, zerbitzuan egindako egokitzapenak...
- Banakako jarraipena.

- Hasierako motibazioari eustea edo motibazio hori areago indartzea.

15 Inguruko beste pertsona eta erakunde batzuekin harremanetan jartzea

Zerbitzua egiten ari garen bitartean, aldi berean, arreta berezia jarri beharko diegu alderdi batzuei; honako hauek dira:

- Neska-mutilen familiekiko harremana: harreman horiek ondo eguneratuta izango ditugu, zalantzak argituko ditugu...
- Proiektua bultzatzerakoan aldean ditugun gizarte-erakundeekin sarean egiten dugun lana.
- Administrazio publikoekin dugun harremana zainduko dugu, hartara, ahaleginak bateratzeko eta onarpen gehiago izateko.

16 Proiektua erregistratu, komunikatu eta hedatzea

Sarritan, meritua duten esperientziak ez dute aztarnarik uzten izandako ikaskuntzetan eta ahaztuta geratzen dira, bai ez direlako behar bezala erregistratu eta sistematizatu, zein ez direlako behar bezala komunikatu. Deskapitalizazioa eta anonimotua saihesteko, hauxe egin dezakegu:

- Egiten duguna erregistratzea, argazki, marrazki, eskema, datuen informatizazio eta abarren bitartez.
- Memoria bat egitea, bai eta zenbait komunikazio-pieza ere, audientziei lortu duguna eta nola sentitu garen jakinarazteko;



horretarako, eskolako edo erakundeko baliabideak (buletina, web gunea, liburuxkak...) edo herriko komunikabideak (prentsa, irratia, telebista...) erabiliko ditugu.

17 Proiektua betearazi bitartean egindako ikasketzei buruz hausnartzea

Proiektua egin bitartean, gertatzen ari denaz, bizi izaten ari garenaz eta ikasten ari garenaz hausnarketa egiteko guneak bilatu beharko ditugu. Gune horiek bilatzen ez baditugu, jarduerak gaituzko gaitu, eta arriskua izango dugu benetan hunkigarria izan litekeen esperientzia bat alferrik galtzeko eta haren azalean baizik ez geratzeko.

Bestalde, aldi horretan, honakoak egin beharko ditugu:

- Proiektua abian jartzean lortu ditugun edo indartu ditugun ikasketak identifikatuko ditugu.
- Ikasketa horiek balioetsiko ditugu eta taldearen bizitzako beste egoera batzuetan nola aplikatu aurreikusiko dugu.
- Geure burua ebaluatuko dugu.
- Proiektua betearazteko prozesuan ohartzen baldin bagara hasieran aurreikusita ez genituen alderdi batzuk aintzat hartu behar ditugula eta alderdi horiek aldatzeko astia baldin badugu, proiektua zuzendu eta berriz egokituko dugu.

6. ALDIA AMAIERA

Aldi honen oinarrian, aurreko aldietan sartu ditugun hausnarketa-guneak egongo dira. Horrez gain, aldi honek esperientzia osoa neurtuko duen benetako balantze bat izan beharko du, betiere, esperientziak dituen bi dimentsioak aintzat hartuta, hau da, ikasketa eta zerbitzua. Bestalde, aldi honek zabalik utzi behar du proiektuari jarraipena emateko edota proiektua beste proiektu bati kateatzeko aukera.

Aldi honen bukaeran, ondo egongo litzateke neska-mutilek prestatutako balorazioko osagairen bat eskura izatea (esaterako, horma-irudi, txosten, elkarrizketen bilduma edo tokiko aldizkariaren batean argitaratutako erreportajeren bat).

18 Egindako zerbitzuari buruz hausnartzea eta ebaluazioa egitea

Hartutako konpromiso bat dela-eta kontuak ematea, irakas-kuntza-aldetik indar handia duen ekintza bat da, eta, beraz, ezin dugu inola ere bazterrean utzi. Horretarako, prozesuaren eta emaitzen balorazioa orekatu beharko dugu; izan ere, gerta liteke oso interesgarria den prozesu batek emaitza eskasak izatea, edo alderantziz.

Zerbitzuan egiten dugun ekintzaren eragina neurtzeko eta era objektiboan ebaluatzeko, honela jokatu dugu:

- Lan-taldeei eta batzordeei bultzada emango diegu beren etekinari buruzko hausnarketa egin dezaten.
- Erregistroa egiteko erabili ditugun tresnak kontsultatuko ditugu.
- Egin daitekeen guztia eta zentzua duen guztia zenbatuko dugu.
- Komunitatea tartean sartuko dugu, gure zerbitzuaren ebaluazioan parte har dezan: lankidetzan gurekin izan diren erakundeak, proiektuaren hartzaileak izango diren pertsonak eta beste batzuk.
- Ondorio orokorrak aterako ditugu.

19 Gogoeta egitea eta ikaskuntzak ebaluatzea

Lortu nahi genituen ikasketako helburuak abiaburutzat hartuko ditugu, eta, hortik abiatuta, berrikuspen bat egingo dugu. Hartara, neska-mutilek alderdi hauek ebaluatu ahal izango dituzte:

- Zein kontu berri dakigu orain (kontzeptuen ikasketa)?
- Zein kontu berri egiten dakigu orain (prozeduren eta trebetasunen ikasketa)?
- Zein alderditan gara helduagoak pertsona gisa (jarreraren eta balioen ikasketa)?



20 Etorkizunari begira aukerak zehaztea

Eta orain... zer? Une honetara iritsita, pena izango litzateke benetan neska-mutilek esperientzia besterik gabe bukatzea, beren bizitzako pasarte labur eta iragankor huts bat izango balitz bezala. Horren orde, beraz, areago bultzatu behar ditugu neska-mutirik, konpromiso sendoagoa har dezaten; eta, horretarako, hainbat bide egon daitezke:

- Proiektuarekin jarraitzea, zabaldu edo hobetu egin daitekeelako.
- Proiektu berri bat hastea, erantzun beharreko beste beharrizan batzuk deskubritu ditugulako.
- Lekukotza beste talde baten esku utziko dugu, eta sentsibilizatorako eragile bilakatuko gara.

21 Bizi izandako esperientzia ospatzea

Zerbitzua izugarrizko porrota izan ez baldin bada, zerbitzua burutzeko izango dugun modurik onena esperientzia ospatzea izango da. Ospakizun horren bidez, hainbat xede lortuko ditugu aldi berean:

- Egindako ahaleginen saria jasoko dugu eta autoestimua indartuko dugu.
- Familiei emaitzen berri emango diegu.
- Sarean lan egin dugunean, gure lankideak izan diren erakundeekin eratu ditugun loturak sendotuko ditugu.
- Egindako lanaren berri hedatuko dugu.

7. ALDIA EBALUAZIOA

Neska-mutilen taldearekin garatu dugun proiektua bukatu eta ebaluatu ondoren, hezitzaileek denbora jakin bat eman beharko dugu izandako esperientziari buruz hausnarketa egiteko, eta, ildo horretan, gure iritzia osatuko duten beste balorazio gehigarri batzuk hartu beharko ditugu aintzat: familien, eta lankide gisa izan ditugun edo zerbitzua eman diguten erakundeen balorazioa.

Aldi honen bukaeran prest egongo gara izan dugun esperientziari buruzko memoria erraz eta erabilgarri bat prestatzeko. Era horretan jokatzuz gero, batetik, egin dugun lan guztia ez da hain erraz eta berehalakoan ahaztuko, eta, bestetik, beste talde eta hezitzaile batzuek gure lana oinarri eta iturritzat hartu ahal izango dute proiektu berriei ekiterakoan.

22 Taldea eta neska eta mutil bakoitza ebaluatzea

Atal honetan, hausnarketa egin dezakegu taldearen hasierako azterketan kontuan hartu ditugun lau eragileak hizpidera ekarrita:

- Nolakoa izan da neska-mutilek zituzten interesen eta motibazioen bilakaera?
- Nolakoa izan da ikasketa- eta adimen-mailaren eta, orobat, esperientzia eskuratzeko prozesuaren bilakaera?

- Nolakoa izan da talde-dinamikaren, lidergoaren, rolen eta gatazkak kudeatzeko moduaren bilakaera?
- Nolakoa izan da taldeko giro moralaren, jarrerren eta adostutako balioen bilakaera?

23 Gizarte-erakundeekin sarean egindako lana ebaluatzea

leZS proiektuek duten osagairik garrantzitsuenetako bat sareko lana da, eta, beraz, alderdi hauen ebaluazioa egin beharko genuke:

- Esperientzia partekatu dugun erakundeen/instituzioen egokitasuna.
- Erakunde/instituzio horiekin koordinatzeko dugun ahalmena.
- Gure lankidetzaz egiten duten balorazioa.
- Sareko lanari dagokionez egin dezakegun balantzea eta atera ditzakegun ondorioak.

24 Esperientzia ebaluatzea Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioaren arloko proiektua den aldetik

Bizi dugun esperientzia Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioaren arloko prozesua den aldetik ebaluatu behar dugu. Hargatik, egokia izan daiteke azken txostena prestatzea, eta txosten labur horretan honako alderdiak adieraztea argi eta garbi: proiektua ona den eta berriz errepikatu beharko litzatekeen edo ez, hasiera ona izan den, nahiz eta hurrengo aldiei begira hobetzeko alderdiak egon, edota oker gabiltzan eta egindako lana zuzendu behar ote den.

Horretarako, komenigarria izango da:

- Plangintzan jasotako guztia berrikusiko dugu: proiektuaren nortasuna, irakaskuntzako alderdiak, familiekiko harremanak, eskakizun formalak, antolakuntzako alderdiak, balantze ekonomikoa, taldearekin lan egiteko aldiak.
- Proiektua iraunkorra den aztertuko dugu, eta, horretarako, honakoak hartuko ditugu aintzat: baliabide ekonomikoak, giza baliabideetan egindako inbertsioa, gizartean dagoen beharrezko eraginkortasunez asebate den...

25 Hezitzaile gisa autoebaluatzea

Ebaluazio-aldia erabat burutze aldera, denboratxo bat emango dugu prozesuan barrena guk egin dugun lana autoebaluatzeko:

- Ba al genituen beharrezkoak ziren ezagutzak?
- Ba al genituen didaktika aldetik beharrezkoak ziren gaitasunak?
- Ondo moldatu al gara proiektuaren antolakuntzako alderdiak konpontzeko?
- Ondo moldatu al gara taldean harreman-aldeetik dinamika egokia pizteko?
- Ondo asmatu al dugu ingurunearekin harremanetan jartzean eta hitz egitean?
- Nolakoa izan da esperientzian izan dugun bizipen pertsonala eta lan-arlokoa?



© 2008 Josep María Puig, *Bartzelonako unibertsitatearen pedagogi fakultatearen irakaslea*, Xus Martín *Bartzelonako unibertsitatearen pedagogi fakultatearen irakaslea* eta Roser Batlle, *Esplai Fundazioa*.

Centre Promotor d'Aprenentatge Servei-gatik (APS)
produziturik eta ZERBIKAS-i baimentuta honako ediziorako.



Provença, 324 08037 Bartzelona
www.aprenentatgeservei.cat

© Edizio honena:



zerbikas
fundazioa

Indautxu 9 48011 Bilbo
www.zerbikas.es

Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ongizateko Zuzendaritzaren eta Gazteria eta Gizarte-ekintza Zuzendaritzaren babesak jaso ditu.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE
GAJETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA
Y ASUNTOS SOCIALES


KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Diseinua: Álvaro Pérez Benavente

ISBN: 978-84-9726-469-3 D.L.: BI-1488-08

Eskubide guztiak gordeta.





fundazioa
zerbikas

ikasketa eta zerbitzu solidarioa
aprendizaje y servicio solidario

